

HERRIGUNE

KOMUNITATEAREKIN PASEATZEN



2. Ibilbidea: "Leioa oinez ezagutzen"

Zer da Herrigune Leioa ?

Herrigune Leioa es un **Laboratorio Ciudadano** de ámbito municipal que impulsa procesos de aprendizaje colectivos, conectando a la comunidad a partir de sus intereses y necesidades y activando iniciativas de bienestar comunitario. Se establecen **3 líneas de trabajo**.

Herrigune Leioa udaleko **Herritar Laborategia** da, ikaskuntza-prozesu kolektiboak bultzatzen dituena, komunitatea bere interes eta beharretatik abiatuta konektatuz eta ongizate komunitarioko ekimenak bultzatuz. Bertan **3 lan-ildo ezartzen dira**.

• **Hazi Leioa.** Garapen eta hazkunde pertsonala sarean.

Herritarren garapen eta hazkunde pertsonalerako lan-eremua da. Pertsonen arreta emateko, zaintzeko eta beharrezko baliabideak eskaintzeko gunea; pertsonen beren ikaskuntzetan lagunduz eta, betiere, beste batzuekin topaketa bilatuz.



• **Hazi Leioa.** Desarrollo y crecimiento personal en red.

Un espacio centrado principalmente en las personas: desde donde poder atenderlas, cuidarlas y ofrecerles los recursos necesarios; asistiendo a las personas en sus aprendizajes personales y buscando, siempre, el encuentro con otras.

• **Ekin Leioa.** Herritarren Berrikuntzarako Laborategia: gaikuntza eta ahalduntzea.

Herritarren garapen kolektiborako lan-eremua da. Hauda, jabekuntzarako, ekintzailtzarako eta gaikuntzarako espazioa, komunitate-arloan arreta jartzen duena. Behar komunitatik abiatuta eta erronka kolektibotan lan egiten den lan-ildo da.



• **Ekin Leioa.** Laboratorio de Innovación Ciudadana: capacitación y empoderamiento.

Es el área de trabajo para el desarrollo colectivo de la ciudadanía. Es decir, un espacio de empoderamiento, emprendizaje y capacitación que pone el foco en lo comunitario. Es la línea de trabajo donde se parte de necesidades comunes y se trabaja en torno a los Retos Colectivos.

• **Garatu Leioa.** Berrikuntza Publiko eta Soziala: ekimenak eta aurrekontu irekiak.

Udal-erakundearen barrura begira dagoen lan-ildo da. Bertako-administrazioan berrikuntza publiko eta sozialaren kultura sustatzeko helburua duena. Herritar eta erakundearen arteko topaketarako eta lan bateraturako guneak sortzeko.



• **Garatu Leioa.** Innovación Pública y Social: iniciativas y presupuestos abiertos.

Es la línea de trabajo que mira hacia el interior de la institución municipal, con la intención y el objetivo de promover una cultura de innovación pública y social en la propia administración local, buscando crear espacios de encuentro y trabajo conjunto entre la ciudadanía y la institución.



¿ Qué es Herrigune Leioa ?

www.herriguneleioa.eus



Gogoratu **Herritarren Laborategia** pertsona guztiei irekitako gunea dela. Ez izan zalantzarik: antolatzen ari diren jarduera, ekimen eta talde guztien berri emango dizugu, zure proiektuak aktibatzeak aukera izango duzu edo, bestela, zure interes eta premiekin bat datozen pertsonen harremanetan jartzeko aukera izango duzu – guk lagunduko dizugu –.

Non gaude: **Iturriondo kalean 10, 2. esk,** (metrotik oso gertu). **Ostegunero 17: 00etatik 20: 00etara.** Hala ere, gurekin harremanetan jarri nahi baduzu, telefonoz dei dezakezu:



627 503 898

edo gure helbide elektronikora idatzi:



herrigune@leioa.net

Irakale ezberdin bat, autonomiarekin disfrutatzeke



Ibilaldi hauek laborategiko parte-hartzailerik batzuen kezka ondorioz sortu ziren; hala ere, lehenengo ideia ibilaldi horiek komunitatean egitea izan zen; hau da, beste batzuekin egitea. Hori ezinezkoa izan da, ezin izan baitira jarduerak talde handietan egin. Hori ezinezkoa zela ikusita, **laborategiko parte-hartzaile batzuek erabaki zuten “píldora” txiki hauek udalerriko gainerako herritarrei eta bisitariei oparitu ahal izango zitzaizkiela.**

Ibilaldietan aurkituko duzuna:



Ibilaldiak parte-hartzaileen interesetik planteatzen dira, beraien gustukoa diren lekuak erakutsiko dizkigute eta interes horren arrazoiak beren hitzekin azalduko digute. Udalerriko auzokideak dira berain herriak dituen interes guztiak balioan jartzen dutena.

Ibilbideak guztiontzat pentsatuta daude, adina, sasoi fisikoa edo zailtasun pertsonalak alde batera utzita.

Ostopo bat ikusi den lekuetan, beste aukera bat eskainiko da, inor ez dadin jarduera horretaz gozatu gabe geratu.

Non aurkitu ibilbide hauek:




Ibilbideak **herriguneleioa.eus** web orrian aurkitu ahal dituzu formatu digitalean, eta **Wikiloc** web orrian.

Webgune horietan, bideoak, audio-gidak, mapak, GPS-rako artxiboak eta beste baliabide batzuk aurkitu ahalko dituzu.

Digitala erabiltzen ez baduzu, auto-gidak erabiltzeko aukera daukazu, HAZ zerbitzuan eta Ekintza tailerran aurki ditzakezu.

Anima zaitez eta atera Leioaz goatzera zure komunitarekin!!!

2. IBILBIDEA :



1. Zenbakiak audio-gida erabili behar duzun puntuak seinalatzen dituzte. Audio hauek herritarrek egindakoak dira.
2. Paperezko gida honetan, haiek deskribatutako eta kontatutako ibilbidea duzu.
3. **Urdinez** markatuta, audio bakoitza aktibatzeko ibilbidearen uneak dituzu. (1etik 13ra)
4. Gogoratu! Herriguneko web orrian informazio gehiago daukazula erabili nahi edo behar baduzu, www.herriguneleioa.eus
5. Gozatu eta ibili osasuntsu!

DATOS DE LA RUTA:



- Zailtasuna: Erraza
- Distantzia: ± 9 km
- Denbora: $\pm 2:00$ ordu
- Altitude + : 111m.
- Altitude - : 9m.



Audio-giden funtzionamendua:

- Herriguneleioa.eus web orrian ibilbileari laguntzen dizkioten audio guztiak aurki ditzakezu eta zure telefonoan entzun ditzakezuna.
- Telefonorik ez baduzu edo nahiago baduzu ez erabili, Herriguneko Ekintza tailerran audio-gidak eskutatu ditzakezu (Iturriondo 10, 2.esk).
- Deskripzioan agertzen den mapan, audio-gida duten gunek ikus ditzakezu zenbakiekin markatuta.
- Behar edo nahiago baduzu, deskripzioa ere aurkitu dezakezu audio batean

Oso modu ona gure udalerria berraurkitzeko bere auzokideen ahotsetan.
Animatzen zara?



Leioako Udaletxea eta eliza.

Obeliskotik ateratzen gara.

"Abanzadako" bulebarra zeharkatzen dugu eta Elexalde etorbidetik igoko gara, segidan **udaletxetik (1)** eta **San Juan Bautista elizatik (2)** pasatzen gara. Udabaltzako eraikina-ren ondoan **Gernikako haritzaren urtadar bat** ikus dezakegu bere azalpen-plakarekin. **(3)**

Sarrienako biribilgunera heltzean eskuinerantz biratu behar dugu, unibertsitatearen etorbidetik (BI 2731) **horoskopo zeltarren parkea** zeharkatzen dugu **(4)** eta unibertsitate kanpusera helduko gara. **Unibertsitatea** zeharkatzen dugu alde batetik bestera, fakul-tate ezberdinetatik pasatzen, lurrian plaka ezberdinetan dauden poemak irakurtzera geldi gaitezke. **(5)**



Horoskopo zeltarren parkea

Heliosciámetro





Unibertsitatetik ateratzean eskuinera biratuko dugu. Alde honetan, **“Arboretum”** eta **ibilaldi geologikoa** ikus dezakegu, leku honetan zuhaitz eta arroka mota ezberdinak aurkituko ditugu (6) (7).





Bizitzaren basoa



Lertutze urtegia

Handik "bizitzaren basoa" izeneko eskulturara jaitsiko gara (haien gorputza zientzietara eman zutenen errautsak hemen gordetzen dira) eta **Lertutzeko urtegira (8)**.

Urtegi txiki hau inguratzen dugu pinudi batera heltzen, bidezidorra jarraitzen errepidera helduko gara.



Lertutze urtegia

Hemen ezkerrerantz biratuko dugu eta aldan behera joango gara **Santimamiko baseliza** helduz, Leioa eta Erandioren arteko mugan. (9)

Gure pausuetatik bueltatzen gara eta zuzen jarraituko dugu nagusien egoitzaren albotik, **Mendibileko biribilguneraino (10)**.

Eskuinetara jarraitzen Kortesanabarri baserri-
ra (aintzinako Leioako baserri baten erreprodukzioa) eta **Mendibile Jauregira (11)** eta izen bera duen parkera helduko gara.

Parkearen amaieran Mendibile eta **Iturribide** auzoak zeharkatzen ditugu (12) Errotabide kalera heltzeko, hemendik **errota zaharrera** hurbilduko gara (13), Atzera egiten dugu bide beretik eta Errekalde eta Jose Ramon Aketxe plazak zeharkatu behar ditugu; Kultur Leioatik pasa ondoren, abiapuntura helduko gara.

Ibilbide alternatiboa:

Bidezidorretatik ibiltzeko zailtasunak izanez gero: Arte Ederretako fakultatearen ondotik Santxoeneatik jaisten den asfaltatutako pista har dezakegu. Behera jarraitzen ibilbide nagusiarekin topo egingo dugu.



